Gaua zulatzen duten ahausietan

Omar Nabarro

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1987 Omar Nabarro
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1987ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Hitzaurrea

GAUA

Zelan sinetsi gauak opariko ez digun egunsentian? Nork dauka horrenbesterako ausardia eki goria bizitzaren tenorea dela baieztatzeko hortxe berton daukan iluntzea aditzeko gauza ez bada? Zeinek ez du igarriko ilunabarrez antzu den maitasunak ez daukala osto gabeko ardaska igertuak baino sustrai sakonagorik? Zeinek?

Bart sobera edan nuen, atzo lar maite izan nuen, eta herenegun Walhallako plazerrak zurrutatu ere. Dzanga! Hil gabeko gudariak denboraren muga birrinduz eguneko kemena Marirengan ixurtzera doaz, Anbotoko leize sakonetan barrena...

Gaua zulatzen duten ahausietan
igortzen dizut gaurkoan gutuna
agian eri helduko zaizuna
hitzok ere gorri blai odoletan!

Inon kokatzeko bada Barrenkaletik erreka ondora doazen karrika estuetan sartu behar izango genuke

Omarren gaua; Gure Txokotik K-2ra luzatzen den bide amaitezinean, gorputza dinbili-danbala pankromatikoan irristatzen delarik kaleak garbitzeko asmotan itzelezko mangerekin ureztatzen dituztenetatik ihesi larrian.

Ihesian, beti ihesian... Bakardadetik, inkonprensiotik, garaun murritzeko buru estuetatik, inguruko ateoen joera kristauzaleetatik. Ospa... Tabernara, ilargira, lagunen tabernara, izter humelak jagoten dituzten izara loretsuetara.

Izaretan zarratu eta eragion txaramelari, edo hobe ez egin urratu soaldia; ez hatsitu laztanen lurrina. Poeta bati hire bularrari darion dardarrak zorionez dio asetzen sabela, sakela, eta betetzen dunan gela. Hago, habil, hakioooo. ai! aai! aaahai! aaahhhai! iiiiihh! iuuuuh!

Trenetan
elkarren larrualde ezkutuenetan
gose izan eta
zure beste ezpainak
orgasmoko atera
eraman ninduten
burmuineko estalkia kenduta

ZULATZEN

jainkoa ez bait da ezer zuek barik
zatozte erreboltara
birjinek gozatu egin gura zaituzte
eta ezin diezaiekezue mesede hau uka

Urak ez doaz bare Mundakako itsasadarretik. Jentea surfean baino ohituago duzu kaitik aditzen, zerbezatik zerbezara edo ardotik ardo haizea hartu eta auzoaren gona berriaren pliegeak miatzen, urrunetik datorren zeru laiatua bezain astiro.

Gaurkoan berriz, itsasoan ez ezik bada lurrean bestelako arriskua ere, «Mundakako Marrajua» deitu hori kale eta tabernetan zehar ei dabil eta. Inguruko atsoak txaramela ondo daukate, pentsatu barik ezpainak josita daroazela, gero. Kristo hark beste urte daukan ateo honek bizi luzea espero duen arren ez dirudi —txepetx horiek adituz gero— luzaro izango denik Calvarioko aldapa hartu orduko.

—Zure ama biziko balitz!

—Ala neskato! Goazen aguro etxera, plazan freskatzen hasi da eta.

—Hobe zenuke daroazun bizitza utzi eta behingoan tajuzko zeozeri oratuko bazenio hor Bilbon beti denbora alferrik galtzen egon barik.

—Alaba be hantxe abandonata dauka eta. Eskerrak amari...

Eta ohizko abar luzea. Ez da lekurik disidentziarako Izaro uhartea estropadetan galdu zutenen herrian, ez da andrerik berez gure marrajuari hurbilduko zaionik, ez da batzokian garagardorik gonbidatuko dionik... «Anaien aurpegian begirada hotza, bihotz berotasuna izaten da motza...» dio aspaldiko kantak. Hala ere, non biziko norberak bere herritik aldenduta?

Hodeiertz urrunean galduta begiak lainotu, eta olatuen bits zuriskak ateratzen duen distira magikoak bekainek estutu arazten dizkio. Urruneko nabigazioan belauntzi piratak, Caribeko hondartza tropikalak, rnultinazionalen eskuetatik libre izan nahian ihesi ateratzen den reggaea. Tartean izurdi jostariak, ostadarra eta lantzean behin ilargi borobildua ere. Atzean lotu dira iluntzeak estaltzen dituen teilatu gorriskak, arestian arrantzale zirenen etxeak eta harriz-

ko karrika txingorrak. Talan, Santa Katalinako haitzak begikune suminduaz birrintzen dituen olerkaria, Antonia eta harena, Jaenetik trenak ekarritakoaren semea. Izengoitiz, ezizenez: Omar Nabarro, begiradaz ere jentea artegatzen duena.

AHAUSIETAN

Iragan egunak lore,
landare,
petaloak zabalik
ur hau edan
eta edan.

Gaua urruntzean goizalde gelidoak hezurrak kixkaltzen dizkizu melankoniaren ilendi goriaz. Berau duzu nostalgia eta bakardadearen uhin kupidagabeek lotsagabeki aztintzen duten harrizko kaia. Eguneroko bizitzaren kai monolitikoa.

Suteak itzalita indiferentziaren laino grizak emeki emeki atzoko laztanak moztu, eten egiten dizkizunean hiriko faroletan zure desesperazioa isladatzen da. Izpi ñirñirkariek latigo ekiten dizute, «begira» esanez «ustez zinena eta benetan zarena». Hezurrak

kizkurturik, lotsaren lotsaz amildurik... Ibaia egunero bezain marroi dageri, atzo bezain hatsitu, lehen bezain opakoa, murgilgaitza.

Ordu horietan ekiak berunezko belainoekiko gatazkan nagusitzeko kemen haina bildu ez duenean dira komeriak. Bart ilusioa, desira menderakaitza zena orain samina besterik ez da. Lehentxoago ondino laztana eta sentsualidade gardenaren itxura zeukana oldu egina da, ilusio abarrak ihartu egin zaizkizu igaliaren gozoa ia ezagutu orduko, eta kaletik zoaz.

Kioskoa zabaldu dute ja, eta atzoko legez hortxe ikusten dituzu pintzan egunerokoak eskegita. Hiru hildako Filipinetan. Athleticek merezi ez bazuen ere atzo berriro galdu. Presoak gose greban, herenegun jasaniko torturak salatzen dituzte oraingoan. New Yorkeko oskesta sinfonikoa Arriagan...

Egunkaria hartu eta bazoaz maitasun eta ardoaren biharamonaz klasera, agian —subertez— dozena erdi edo hamar ikasle izango duzu Santurtzin zai, hantxe, portu ondoan. Trenean atzoko neskaren usaia eta gaurko ikasgaiaren gomuta nahastatzen zaizkizu txarto irabiaturiko opilean; gatz gabeko entsaladan. Baina... poeta naizenez gero ez dut ezertxo ere espero, ez orain eta ez gero.

—Santurtzira joan-etorria.
—Komo dize?
—Idaibuelta a Santurze.

Trenaren grizak ez du egunsentiaren apala urratzen. Aurrean aurpegi patetikoak, ilunak, logura galantaz kargatutakoak. Eskuinaldera Altos Hornos, ezkerretara blokeak, aurretik portua, eta haruntzago ezer ere ez. Egundoko bakardadea, zulo amaigabea eta olerkiak idazteko premia gorria. Egunkarian doaz lehen anotazioak, olerkiren baten lehen notak —eta ixiluneak— auskalo zein konpasetan... eta izen bat. Ordu batzu lehenago gaua zurekin konpartitu duenarena. Apurka apurka ia konturatu gabe argitu du egunak, eta trenak Portugaleteko estazioa be utzi du atzean.

Iñaki Goitioltza

Gaua zulatzen duten ahausietan
Igortzen dizut gaurkoan gutuna
Agian eri helduko zaizuna
Hitzok ere gorri blai odoletan

Laberintoa bait dago izarretan
Hormak labainez josiak astuna
Eta ilargiak berak ene kuttuna
Fusil luzeak ditu adarretan

Eta itsasganan piztean suteak
Goiza urratuta oilariteak
Sumendi isuria baino beroago

Heltzen bazaizu jakin dezazula
Zaurietan sutzarra daridala
Gaur naizela inoiz baino bakarrago.

Eskeintzak

Martari

Su gabeko alderantzizko kea
lainoa, mendi maldeetan behera
itsaso ferdearen erribera,
egunsentiko esku lehun askea;

emeki zabaltzen den atea,
zuhaiztien maitemin laztanbera,
lobelarrezko ametsen sendera,
burdin mailarik ez duzun katea,

deuseztu egiten den kubritxeta,
goizargia urratzen duen ganibeta,
begirik gabeko aurpegi mutu;

ainendi zeure magalean bustiz
oroimena gal, desegin neu guztiz,
betirako ez izatera lotu.

(H)Elenari

Inorentzat izan barik gaiztoa
erdi bi egin zidaten bihotza
sartuta bertan ankerki haiztoa
kupidagabea bezain zorrotza.

zelan moldatu ohi suak ezkoa
hala neu orain, bizirik hilotza;
etxetzat eman didate ghettoa
neurean bilakaraziz arrotza.

hilobiak bai dira hemen ttukun
bestean gaude eginda aspaldi kale,
zoriona gugandik zein urrun.

esku zuridun hainbeste lapur
eta gu apurren baten eskale;
ez zaituztet penaz utziko, egun.

Itziarri

Esnatuz laberintoan sugeak
plaktonez zuriska ozeanoa
ametsetan igerika baleak
more han urrun urrun ozonoa

urdin oinpetan urrezko hareak
higitu ere egin barik banoa
zeure begietan preso sareak
mozkortuta irri hori arnoa

itsasoan barna hainbeste albatros
baina nondik hegatan datoz
bakardadean zohardia lagun

berton nago paretaren kontra zut
pozoina lerdea edaten zurrut
zeure izena niretzat berba lagun.

Autobiografia

Burdinezko harietan behera
linburtzen diren
euri ttanttak baino anonimoago,
espaloi desertuak ibili
gaueko itzaletan itzal,
odola ardoz nahastuta
—ibai marroian behera
plastikozko gauzakietan
arimaren ispiluak kausituz—
San Antongo zubia,
izu ororen frontera;
Bilbao la Vieja;
ijituak; P.E.S.A.; tabernak;
Urazurrutia; Zamakola;
ladriluzko tristuradiak
eztul gaisotien gordeleku.
Beste ibarrean
Eusko Trenbideak
Bizkai barruko sabeleraino
eta
oroimenean
ernegu txori ilunak
logura hordia zarraztatzen.

Egunak

Luzeegiak eritzitako egunak ere laburrak joandakoan

Gure bizitzako egun batzu
haziak bezalakoak dira;
orimeneko hildoetan ereinda
tantai bilakatzen dira.
Gainerakoak, ostera,
euria edo lurra
bezalakoak dira,
anonimoak.
Iragandakoan,
denborazko lurrin
mehez bilduta,
paisai bakarra
osotzen dute
eta maite
egiten ditugu
haziak bezalakoak
diren egunok
eta baita
euria edo lurra
diren besteok
ere.

Itsasoa kristalezko goldez hildokatu;
esperantza haziak erein bertan
eta, arratsero, talan jezarri,
ernalduko diren landare misteriotsuetako
igali goxoen zai. Aintzinatiko
gure egarri zahar hau asetuko
duten igali goxoak itxaroten.

Eguzki gogorren batek
kristalak urtu,
barruko haziak askatu
eta landare distirakorrak
haziko ote
gure oinpeak
zauritu egiten dituen
lur eremu antzu honetan.

Denboraren iraganak
geure egunak eihotzen ditu
hauts mehe bihurtaraziz,
aintzinate primigenioko arkaitzak
harea bilakarazi dituen legez.
Oraingook, joandakoan,
badia epeleko plaia goxoa
osa aigeneza;
ondokoen oinek zapal gaitzaten,
geureok, itsaso zabalari begira geu,
hondartza honetako harea
laztantzen duten bezala.

Goiz euritsu honetan
euri zaitut zeu ere
— tanta infinitoetan
                l e h e r t u t a —
oroimeneko paisaia bustitzen
eta bustitzen.
Zeu ere euri.
Iragan egunak lore
                landare,
petaloak zabalik
ur hau edan
eta edan.
Euri zeu ere
eta emozioek —blai—
polen hezetsuz
ernalarazten
loreak, landareak,
hazi eta hazi
egiten diren iragan egunok.

Epelak dira hemen arratsak
Fruituz asetuta baratzak
Samurki laztantzen bizi-hatsak
Hurrun oraingoz Herioren urratsak

Batzutan zer ote melankonia?
Hautsiz gauzekiko armonia
Ahots ezkuturen baten afonia
Edo barruko zerbaiten agonia?

Itsastxorien hegalada arina
Arrantzale zaharren itsasmina
Aldi iraganari eutsi ezina
Lurrun bai baina hilik jazmina.

Arratsalde honetako orduak

Gutizia eta Mina

—ene arrebok—

itsaso eta hondartza

geroa eta iragana

zarete

Oraina

zuetaz kontzientzia

besterik ez

eta aski

Hiltzear den argiaren odolak
—hautsita inguratsaren zainak—
urruneko horma urdina blaitzean,
kristalezko gurpil zorrotzak abiatuta
giharretako bide nekatuetan,
belartzan etzatera deitzen nau
suge nagien logura laberintikoak;
landare gautiarrak hazten orduan
neure erpuruetan, baso bilakatzeko
eta bertan bizi diren basapiztiek
zeure haragia bilatzen dute.

Eztarria kiskaltzen didaten
arimadun beirazko gorputz hotzak,
besterik ez dute aurkitzen.

Arratsalde honetako orduak
tabako hostoak bailiran
erre egin ditut
tristura horiskan bilduta
gauaren bota ilunak
zigarrokin muturra
zapaldu eta amata arte
Pertsianan behera amildu
da eguzkia zirrikitoz
zirrikito eta azkenean
piztu egin dut argia
tristurazko azken ke
ahokada kanporatuz astiro

Orduok buztinezkoak balira
eta iragan denborako hormak labe
eta zuregananako oroitzapenok artisau esku
eta orduotarikoren bat
oroitzapen eskuetara eraman
eta beraiek molda dezaten
eta labea sutan
oi nolako anfora
hutsune hau bertan gordetzeko

Zazpirak eta bost.
Hil egin da denbora
alde egina bai da
azken trena.
Karriletako herdoilak
zilarrezkoak ditu ezpainak.
Heurek irentsi haute.
Horrez gero iragaten dena
hondorik gabeko amildegian
behera doa
erlojuei barre egiten
zazpirak eta bost direlarik
hil egin bait da denbora.

Uztailak mertxika ilunez
bete zituen ene ahurrak
zeru sabaia hari urtsuetan
desegiten zen tenorean;
heuretako uretan sekula
murgildu bako ibaiak
ziren zure begiak
telurikoak bezain
bustiak;
haruntzago, oihana
oihartzun misteriotsuz betea
hegazti ezezagunen hegal eremua,
kristalezko hots-kaleidoskopioa,
lur usaina zerion zorabioa;
egunsentian
izpazterra,
ninietan isladatutako
eguzki izpietan blai
eta nire bihotza izaroa
eldarnio urez inguratuta.

Zure ezpainetako freskotasun bustia
neguko hotzak estaltzen duen
burdinarena bezalakoa da:
ikuitzean
erre egiten du.

Chopin entzuten

Zure soinaren irrikaz irristatzen naiz
arratsaldean behera, piano piano,
zeru arreak euria
agintzen digularik.
Piano notetatik kirikatzen naute
nano zuri-beltz saltariek,
sokarik soka, notaz notaz,
logela bustitzen duen leihotiko argia
hots erritmikoz ureztatuz.
Ai ene! dekadentzi horren oihartzun estrainoa
irudiz gainezka musika,
pianista bakartiaren irudia gogoan
«Barcarola» bihotz adobaki hau
nork konposatu ote duen ez dakidala;
«Decca» beltz dekadenteari darion kadentzia;
Gela zabala, pianoa, kadira eta...
Chopin?

Zutaz maitemin

FIN

Hilobi profanatuak.
Nigan gorderiko zure gorpuari
azken matraila hezurra
kendu eta
bala bat osotu dut
berhil zaitzadan
iraganpean zautzala
berpizten ari bait zatzaizkit
aintzina zureak egindako
ene kuttuna.

Ez zaitut hil egingo
hatzak utzi bait ditzaket
zure gorpuan
eta hala ere
hil egingo zaitut
lorratzik utzi gabe.

Horditurik gaua zure adatsean
izarrak zeruan aienatuz
begietara lerratu zaizkizu
Ardoz bustitako mazustak
gorri more beltzak
hazten ezpainotan
zeintzuetan
neu ere mozkortu guraz nabil
ahoan sentitzearren
hagin-sasitzan ezkuturiko suge hori
ea laztanez pozoindu
eta hil egiten nauen.

Zure irudi hautsia berrosotzeko
oroimenaren esku dardaratiak
atzerantz luzatzen ditudanean
zarrastatu egiten zaizkit
erloju orratzek gilotinaturiko orduei
darien hareazko odolak
—hotzaren betaginak baino zorrotzagoa—
blaitzen bait ditu nire oroitzapenak
bustitasun sarkorrez.

Oroimeneko bide itzaltsuetan
zure ahots distiratsuaren oihartzunek
bapatean zuhaiztitik hegaladan
aldendutako txorien hegal hotsak
isladatzen dituzte, argiro.
Supitoki, sinfonia mehean
lehertu dira horbel nabarrak,
umeren baten oin jostariek
zurrunbilo leunetan zorabiarazita bezala edo,
hari ikustezinen inguruan biraka.

Ene barne basoa
aurrerago zapalduriko zein erromesen
itzalaren irudi ezabatuxea
sumatu ote dute ahots horretan bertako biztanleek,
oroitzapenok, hain kristaldurik,
esnarazteko niregan.

oraingo lilura hau ez ote,
berau ere,
gauerdian, tximista beldurgarriak,

lipar batez,
bidaztiak hain gutiziatu duen aterpea argitzean,
beronengan izarniatzen den
bozkario ahokada itxaronpentsua.

Zilarrezko garrak, belarra leunki
musukatuz,
itsasotiko haizearen aurrean doaz,
iheska.
Euri metaliko batetako malkoak
itsasgaina bihurrian,
kristalezko txorinoak bailiran, jauzika
uhinez uhin.
Kresal molekula itsaskorrak haitzetan,
fosforokorrak,
animalia estrainoen hezur-hautsa ote
dira,
uraren errota-lan etengabeak eihota;
hastapenetatik datorren itsas gorataldi
eta beherataldien
dantza ilargitiarrean ari den errotak
deusezturik.

Arroka primigenioak birrindu ditu denborak,
zeure oinok zapaltzen duten hareatza bilakarazi
arte.

Harearen margo berak estaltzen zaitu:
brontzez tindaturiko soina,
ezpainetan tarteka iradokitako haginek
uztaileko goizaldetan itsas negarra den bitsari
lapurtu diotelarik heruren zuritasuna.

Eternitate egarriak narama zuregana,
lipar batez bederen, neutasuna galduta,
elkarrengan harea, kresala, ura, oro batera
izatearen elixirrak ase nazan arratsalde ero honetan.

Gogoratzen ote zara ortzia eta itsasoa
elkarren besoetan desegiten diren une hartaz?
Gaurkoan ezpaina da, odoletan,
ihidietaraino labanduz hedatzen den itzalak
iluntasun ileguritsuz tindatzen dituenean mendi
maldak;
enarak iheska hegaldatzen dira, gaua buztanetan,
marfil zorrotzezko hotsez eztenkatuz airea.
Baso hostotsuetako laberinto zinbeletan barrena
piztu egiten dira, izarniakorrak, izarrak
gaupiztien nini distiratsuetan.
Oraintxe epelagotzen direlarik portuko harri
kresaltsuak
untzi zaitut neure oroitzapen itsasoan nabigatzen,
ezinaren minak eraginda, uhara luzea utziz bertan.

Desagertu egin da uhara, ostenduz,
itsasgainean nagiki etzundako ilargi-adarpean
—urrezko labain ezabatsua, laranja atal irudi,—

Eta portuko hareatza hezetsua ere urrezkoa.

Odoleztatu egingo da mendien lepoa ekiaren isuriaz. Uhartetik abiatuko dira kaioak kairantz buztanez egunsentiaren norabidea marraztuz desegiten ari izango den behelaino mehe zarpailtsuan. Ez da izanen ez uhararik ez ilargi adarrik, altzairuzko itsasgaina eguzki printzez urreztatua baino.

«Tropicana» bihotzean

Ron kolore horiskan zehar
limoizkoagoak ziren zure
ezpain gorriak,
epelagoa perkutsioaren doinu laztana;
denbora goragalea izan
eta elkarren besoetara
gonbitatu gintuen.
Ziur genekien
orkresta baldar hura
ez zena karibetarra
eta, baita,
ez gintuela urrezko ezein hondartzak
bilduko
bere harea aluzinakorretan.
Besoetako zure belztasuna
neonezko argipetan,
dardaraz, zilarreztatu ohi zen
aldika.
Marrazo errakorren baten hegatsak

bihotz-motz utzi ninduen
zure itsasoan
murgildu ahala,
arratsa hiltzear,
sabaiko zerua arno kolorez
tindatu zenean;
koralezko haitz kresaltsuetan
kiskali bide zen
nire gorpuaren
azken apurrik apurrena ere.

Nire gogoak
barrikada erraldoia
du eraikita
ozeanoa hasten deneko
«Tropicana»ko ate hartan

Zure alboan Edit
izerdi hatsa darit
zure alboan Judit
arnasa mozten zait
bion erdian Edit
bion erdian Judit
hiltzen ere badakit

Itzala jo dute izarrek

Gau zarata zoro,
txakurren ahausiak
iluntasunaren hezur;
ilargia bera gezur;
goizeko suziak
itxaroten oro.

Itzala jo dute izarrek;
Ilargia heren gutxiago da
—Zehazkiago;
Ilargibetea heren gutxiago da—
Hamabost malko zerope;
Itsasgora bere goiunera helduta
Uhinen hotsa eta zuridura
Besterik ez dute ene begiok
Ene belarriok;
Neuk ere ez zaitut
        Maite.

Gauaren edabe iluna
leunki labantzen labeetara
eromen zulo gorietara
aroak oratu harietan
                behera;
odola da
        oroituz
deika;
haragiminez itotako odola
suge hordia
zainetako laberintoan
zeure labeetako epeltasunera
eroan ezinik burua;
aroak oratu die
plazereen hariei
sugea esnaraziz zainetan.

(edabearen bila
  abiatu da sugea)

Hautsi egin dira gau-eztarriaren sokak
Mututu egin dira izarren ezpainak
Ebaki egin diote rnihingaina ilargiari
Itzalak airea falta du birikietan
Zerez mintzatuko ote zaigu egun sentia.

Euria eta biok elkarregaz berbetan;
Euria jausi eta jausi
Eta ni
Jausten eta jausten
Sekula be jausten amaitu barik
Jausten eta
Jausten
Bonberoak etorri dira
—punteoaren puntan puntako
notak—
Gorpu suizidatuaren
Gizartearentzat berreskuratzeko
—bateria bakarraldia—
Oraintxe hasten
Benetako historia
Hau bluesa da
Ni jausten
Eta jausten noa
Euriagaz berbetan
Zeuok amaitu behar duzue
kanta
Ni jausten eta jausten
Noa eta.

Egunsentiko trenak

Bertara doan haizeak
ez du zalantzarik
ez oinik.
Haizea baino
besterik ez da
beste ezeren
arnasa barik.

Trenetan
egunsentiak
akidura besterik ez direlako
logelako isiltasunean zehar
abiatu ginen
Ekialderantz
itsaso mugaezinean murgiltzera.

Elkarren larrualde ezkutuenetan
mentura liburu bana
irakurri genuen
erpuruetaz.

Gose izan eta
—eskuak sare
    titiburuak buia—
arrain gordinak arrantzatu
eta jan egin nituen
gordinik
goxo   Circe.
Mihingainean behera

ehundaka baraskilo larruratu
zenizkidan
bertan

Eldarnioaren laberintoaren
mapa libidikorra
marraztuz Ariadna.

Orgasmoko atera
eraman ninduen hari fina
zeure ahotsa Ariadna.

Zeure beste ezpainok
erakutsi zidaten
ardo goxoenen segeretua
neureak
itsasabel ertzeko
irla landaretsuan
pausatu zireneko.
Polifemo
mozkorti itsutua
besterik ez naiz orain.

Burmuineko estalkia kenduta
ekaitzez eta piztiz

gainezka
utzi dizkidazu garunak
Pandora.

Itsaso hartan
ito zenuen Orion
naiz gauero
ortzean hiltzatuta
bihotz bako
Aurora
miresgarria.

Eragiketa basatiak

Bakardadean
Nire zainak
Nikotinaz eta alkoholez
Zeharkaturiko bideak
besterik ez.

Biri bi gehitu
eta, ondorioz,
desolazioa eman.

Biri bi kendu
eta, ondorioz,
infinitoa eman.

Bi bider bi
eta, ondorioz,
zirkuloaren karratusuna.

Bi zati bi
eta, ondorioz,
betirako hautsi.

Eragiketa basatien
tenorea
heldu da.

Izerdi hotz han, tantok, ez ote
barruko itsasoak gainezka eginda
begiak ezin aurkitu eta
larruazal zabalean
hedatzen ari den
malko olde porrokatua?

Erraietako amorruan txertaturiko
hitz-kate totelak bailiran
alkoholetan itotako kristalezko perpausak
osatzen dituzte
—etsipenak agindu joskeraren menpeko—
mostradorean pilaturiko baso hustuek
gauero

Inoiz,
errimatu eragin ditut
gernua
eta
infernua;
gaurkoan gurago nuke
buztartu eragin
zeruko izarrak
eta
zure alua.

Iustizia egin nion alkoholari
—irekigailurik ez,
egarriz itotzear—
mahai ertzeko gilotinan
botila madarikatu haiei
lepoa moztuz,
gurago bait nuen
erraiak kristalez hiltzatuta hil
lehorraren lehorrez
baino

Udaberriko bezperak

(kantatzeko kantak)

Nenufar zuriak alkohol usaina
dariela
neure boligrafoko tintetan
igeri
udaberriaren seinale
Lumabelar ostotxo zuriskak
hegaz
neure kuadernoko horrietan
alde egiten
udaberriaren seinale

I

Udaberriko bezperetan
Arratsak
Erdi lo
Geratzen dira
Horiska meheetan etzanda
Su estrainoenak pizten dira orduan
Nerabeen bihotzetan
Eta inguratsean
Erreboltara deitzen gaituen zerbait
arnasten da.

II

Heroea zara
Zeure buruaren aurka
Oldartu
Eta
Heroinaz
Zeure larrua
Hautsi duzu

Paretaren kontra jarri zaituztenei
Maiteagoa duzula
Pareta
Heuren fusil ahoak baino
Frogatzearren.

III

Gure lehen kantuak
Azkenak izanen zuentzat
Gure lehen suek
Hotzikarak eraginen zuei
Heriok piztuko bait ditu
Urrezko katabutetan
Ehortziren zaituztegu
Usoez inguraturik eta
Errespetatu eginen ditugu
Zuen konputagailuen lutoak
Ez bait ditugu
Beste sekulan ere
Abiaraziko.

IV

Prest ditut nire armak
eskuetara datorkidan

edozer
eta zuenganako
gorroto infinitoa

V

Erabaki sendoa
Munizioak amaituz gero
Prest gaude
Herkide hilen hezurkinak
Hartuta
Balak osotu eta
Tirokatzen segitzeko.

VI

Aingeruei idatzi diet
«Itxi itzazue zeruko ateak
Errebolta garaia heldu bait da
Utz itzazue santu ustelok
Heurei darien kiratsean itoten»
«Jainkoak sortu zituen klaseak
Zatozte ifernuko sutetara
Historiazko odolkietaz
Txintxiburdintzia egitera»
« Jainkoa ez bait da ezer zuek barik

Zatozte erreboltara
Birjinek gozatu egin gura zaituzte
eta ezin diezaiekezue mesede hau uka»
Badakit aingeruen erantzuna
Ortzadarrean behera etorriko dena
Hauetariko suzko eurite osteren batetan.

VII

Gu
asunak bezalakoak gara
aski da
zuek edozein bazterre—
tan
kaka edo txiza egin
izatea
gutarikoak hazte—
ko
Zuek
desagertutakoan ere
gu
bersortu eginen
gara
zeuen hondakinetan.

VIII

Urrunegi heldu da zuen gorrotoa
Unibertso osoaren bira eginda
Gerripean
Akuilatzen gaituen
Iltze muturra bihurtuta
Zeuen aurka
Garamatza.

IX

Gauren batetan
Kale ttukunketa zerbitzuetako
Argi birakorren pean
Joko dugu larrua
Zihur jakinen dugulako
Biharamunean
Zabortegiak heurak ere
Geureak izanen direna
Eta ez dugu
Inorako presarik izanen.

Insomnioa

Hitz isilez
logura gorrari
deika.
Otsoek jan dute
—ez ote duzu usaintzen
gorpuari darion
zoramen kiratsa—
zaldun
urdin
hori
garunetako laberintoko
baso basatietan.

Logura,
ilunetan
edaten
den
ura.

Loa,
begi
bako
horren
soa.

Ametsa,
uretan
urtu
den
promesa.

Lurrin urdinean zatoz
hurrindik
kezko ezpata eskuetan
zaldi isiltsuan zamalkari
hurbildu ahala
aurpegia ezabatuta desegin
egiten zaizun bisitaria
apatz baldarrez
loa ezartzera giharretan
garuneko baso korapilatsuetan barrena
arimalde galdutako biztanle telurikoak
esnatzeko ezkontzientziaren egunsentian
aintzinako alkimia formularen
eraginpean legez
logura logura
desmugetako oihalean
josten gaituzun hari epela
mutua
mehea
Logura
zaldun morearen zilueta dardaratia.

Loto lore letaletan

petaloetan

lo

lutoa

lo

petaloetan

loto lore letaletan

Soneto profanatuak

I

Haizeak eragindako hosto-dantza
errekatiko kantu-hotsa da lei
hoan zehar gela ilunera dei
ka eta deika Abuztuan antza

artean abiatu barik antza
rrak arrokan jezarrita Lorelei
kantuka erakartzen larreko behi
tzainak lizunduta uretarantza

lekuko mutu artezak dira altz
triangularrek ezin dutela altz
atu bururik itotzear dire

larik eskerrak ametsa besterik
ez dena dena haizea bareturik
espermaz bustita biga maindire.

II

Erpuruetan izerdi ttanttatto
distirakorrak kalanbrekadetan
erdituak barru barruko pistolak
disparatuta legez bai auskalo

ernemindu egingo ote den al-
diz gorrotoa gaindi beste zerbait
erdeinu iraunkorra mendekuzko ez-
tiz elika ditzagun gure mamu

gautiarrak elektrodokume
gauzatuak ez haragi ez he-
zur izan barik eztarrian gora

pilatzen zaigun bisitari nahas-
pila ito dezagun betirako i-
zurri hori tortura deusez dadin.

III

Eldarniozko zaldiak zamalkatzen
oroimenean zabaldu zaurian.
Zainetan gora ezinaren zama;

arrain ustelduen hainbat ezkata darama
haizeak ume gorpuetako ezpain
ubeldu hotzetara.

Keinu estrainoak ditu moldatzen
arratsaren lepoak zerumugan:
kolore itsuak darizkio ortzeari
pizti ninien safarirako orduan

(ez dut gura ezein malko
ez bada ostadar jokoetarako
ez bada zaldi zurien zainetan
eldarnioren irria amesteko)

IV

Ni hil eta lurperatuta
satorrak gorpuratzean
usteldura mintzatuko zaie
mutuki hortzetako ertzetan

zatiki urtsuak utziz
itsu heurak
itsu neure begi niniak
deseginez neu haziz heurak

bai heurak bai neu
gau luzean ilargi barik
ilunpetan murgilduta azpinabigatzen

Itakarik ez Peneloperik ezta
belar hostoetan behera labantzen
euria geure gorpubidearen bila lurrean

(belar hostook gorago haz daitezen
zabalago bar dezaten euria
erosoago laban daitezen tantak)

Euskal mitologia

BERRETERRETXEKO KHANTORIA I

Haltzak ez du bihotzik
ez gaztanberak hezurrik,
ezta errekako behelaino horrek
nik bezainbat tristurarik.

BERRETERRETXEKO KHANTORIA II

Leisiba
egin dun
iseba.

Alferrik
busti dun
ikuztarririk.

Satorrek
janen dinate
atorra.

Uso saldoaren itzalak
arranoa marrazten du behegainean
Tenorea da
Ilargia suge esnatua da
eguerdian
Eguzkia haizkoratu egingo duen gakoa
—erdi erdian eutsiz—
ez dugu besterik behar
ludiazaletik morrointza
behin betirako erauzteko.

Kantu barik geratu den erreka
Nerbioi, Ibaizabal gehi Zadorra,
soinean daroazula zaborra
ez dantzut ur-hots gardenen fereka,

usaindu egin baino hainbat kirats;
—lantegi tripontzitiko adurra,
negute industrialeko edurra—
dirudizu Mariren Mikelats.

Aintzina zeu bizitzaren ernamuin,
lats-adartxoetan zuhaitz oparo,
ubidean ibilita luzaro;
egun, amets-txar ororen emagin.

Begi bako kopetan zenbat kolpe
itsasoa ontzera zoazen hilhaur;
baratz horretan alferriko zimaur,
ez bait da ildoan ezein golde.

Dei egiten dizut, zeuri, Axular:
nondik berreskura bizitza;
emaiguzu, aztia, zeure hitza,
ez dadin berandu, ez luzatu lar.

(Bost sonetotarako aina lehen kuarteto)

Kristal-muineko iratxoen
begi ninietan isladatuta
hausten argi zuria
gauzetan pausatzen diren
kolorezko pinpilinpausak
esna araziz

Eguratseko zainetan gora
margoen eroaldi arinetan
buztartzen aldibereko
izpiak infinitoak
eraikiz deuseztuz
e t a berreraikiz

«Lamiak bukatuko direla
SanJuan goizean jaiotako
zezen nabarrarekin
erreka goldatzen denian»

Arrokaren alboan
urrezko orrazi
hautsiaren orratz
lorratzak
saka-
banaturik.

Aintzinako ubide
gaur lehor horretan
antzar estrainoen
lorratzak urrats
arrasto fosildu-
ak.

Usain zoroa
altzen adarretan
dariolarik
txirulari
haize sarkor
sikua.

Negar zotinak
zalantzazko dantzan
txertatuta
aintzinako kantu isilduen
oihartzun
antzuetan.

Azkena

Irail horeila,
itsu-mutil
iada hila;
landareen zainetan
piztutako ezpatek
ireki zauria.
Irail isila,
ortuetako artoen
masail ferde zurbila;
polenbako petaloetan
abiaturiko espoleta
geldoa.
Irail borobila,
buztan luzedun
azken sugandila;
zeru gorien
zapore gazi
zoroa.

Irail iraila.
itzaletako lilietan
harildua;
mahats mordoetan
amets more
etsiak.

Zeurera itzuliko naiz
aintzinako itsaso zaharra
kale urdinen biltokian
duzun kaioen katedralera.

Zeurera itzuliko naiz
egarri apartsuetan eskuak
erritmo hautsiak ahoan
begiak uhin higiduretan asetzera.

Zeurera itzuliko naiz
zelan blues zaharkituen notak
kitarra nekatuen soketan
halaxe neu talako hostoen dardaretara.

Zeurera itzuliko naiz
deihadar eginda mintzoak
azken eremu gardenetan
aroen harietan betirako ezereztatzera.